



FORTUNA
kirol elkartea
club deportivo

83. Fortuna Mendi Ibilaldia

ARAUDIA

1. art. Fortuna Kirol Elkartek ibilaldi honen antolaketarekin duen helburua kultur eta kirol zaletasuna zabaltzea da, izan ere, mendizaletasuna sustatzeaz gain, gure mendietako bazterrak eta bideak ezagutzera eman nahi ditu.

2. art. 83. Mendi Ibilaldi hau **2025ko ekainaren 1an** ospatuko da. Irteera, Ibilaldi Luzea, **UHARTE ARAKIL** emango da goizeko **7:10tan** eta helmuga ORDIZIAN egongo da. Ibilaldi Motza Aralarko GUARDETXEEn hasiko da **9:00tan**, ibilbide luzearen bide berdina jarraituz.

3. art. **Ibilbide Luzea 40 kilometro** ingurukoa izango da (**desnibelak + 1.785/-2.105 metro**) eta leku hauetatik igaroko da: UHARTE ARAKIL, GUARDETXE (1go kontrola), PUTTERRIKO LEPOA, ALLEKO, LAREO (2. Kontrola), AGAUTZ, ARALEGIKO LEPOA, LASARTEKO (3. kontrola), LAZKAOMENDI eta ORDIZIA. **Ibilaldi motzaren ibilbidea 30 kilometrotakoa da (desnibelak +875/-1.775 metro).**

4. art. Banaka edo gehienez ere hiru kidek, adin nagusikoak, osatutako taldetan egingo da Ibilaldia eta kontrol guztietan erakutsi beharko da ibilaldiko txartela.

5. art. Ibilaldiaren iraupena, geldialdiak barne, 10 ordukoa da eta 8 ordutakoa, aldiz, ibilaldi motzarena. Ibilbidea burutzen duten parte-hartzaileek diploma jasoko dute helmugan, betiere txartela behar bezala beteta aurkezten badute eta ibilbidea egiteko 6 ordu eta erdi baino gehiago eta **10 ordu eta 40 minutu baino gutxiago** behar izan badituzte. Ordu horretan helmugako kontrola itxi egingo da. Ibilaldi motzari dagokionez, gutxieneko denbora 4 ordu eta erdikoa da eta gehienez **18:00ak arte**.

6. art. Izena ematea eta garraioa: www.cdfortunake.com webgunean. Prezioak hauek dira: **12€** mendi federatuek eta **15€** ez federatuek. Autobus-zerbitzua (**JOATEKO BAKARRIK**, ibilaldi motza eta luzea): **11€**. EZ dago itzulerarako autobusik. Renfeko do autobus zerbitzuak erabili daitezke edo, ibilaldi luzearen kasuan, Ordizian kotxea utzi eta irteera autobusez joan.

7. art. Ibilaldia mendiko ibilaldi bat dela kontuan hartuta, parte-hartzaileek horrek dakartzan arriskuak kontutan eduki beharko dituzte. Bestalde, Elkartea antolatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango parte-hartzaileek izan ditzaketen istripu, galera, kalte edo lesioagatik, edo kontroletik kanpo iristeagatik, ez eta antolakuntzari zuzenean egotzi ezin zaion edozein gertakizunengatik ere.

KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

1.- Autobus zerbitzua (ikusitako ordutegiak eta geltokiak webgunean):

A) AUTOBUS ZERBITZUAK IRTEERETARA:

- a. Ibilbide LUZEA: **IRUN-DONOSTIA-ANDOAIN-ORDIZIA-ETXEGARATE-UHARTE ARAKIL**, geltokiekin tartean.
- b. Ibilbide MOTZA: **IRUN-DONOSTIA-ANDOAIN-LEKUNBERRI-GUARDETXE** geltokiekin tartean.

INFORMAZIO + : www.cdfortunake.com / ekitaldiak@cdfortunake.com / Tel. 943214900

2.- Ekipaia. Irteeran ekipaia adierazitako autobusaren maletategian utziko da. Ez utzi beste ezer autobusetan. Ekipaia helmugan jasoko da. **Poltsetan ez utzi gauza baliotsuak**, antolakuntza ez da arduradun egiten hondatu edo galtzen badira.

3.- Bidea. Ez dago zailtasun aipagarriarik ibilbidean. Ibilbidea nagusiki basoetatik doa -pagadiak Aralarren eta pinudiak Agautzetik aurrera-, Lazkaomendi inguruan irekitzen delarik. Bertatik asfaltozko bidea izango da kilometro luze batean zehar.

4.- Hornidura. Mendi ibilaldi honek norberak bere edari eta janaria ematea proposatzen du. Hala ere, kontroletan oinarritzeko edariak eta janariak banatuko dira. Hasieratik edaria eramatea gomendatzen da. Bukaerako zatian bi iturri daude, Bostbidita bidean (26,5 km) eta Lazkaomendin (36 eta 38. Km).

5.- Larrialdiak. **Larrialdi kasuan** telefonoak: Autobusak: 649826482. Mendi ibilaldian zehar: 689234367.



FORTUNA
kirol elkartea
club deportivo

6.- Balizajea. Ibilbide honetan material degradagarriak bakarrik erabiliko dira (oihala edo papera eta banderak) eta guztiak jasoko dira behin Ibilaldia amaitzean. Garrantzi handia duten zenbait bidegurutzetan puntu urdinak margotuko dira bidea errazago adierazteko.

7.- Hondakinak. Mendiari eta naturari zor zaion errespetuagatik, ontziak eta hondakinak gorde eta helmugan utzi behar dira; edo hobeto, etxera eraman. Ibilaldiaren zati handi bat Aralarko Parke naturaletik igarotzen da.

8.- Kamiseta. Parte-hartzaile bakoitzari kamiseta bat emango zaio helmugan, Ibilaldiaren oroigarri moduan.